


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 0,8 murriztu da 2025eko irailean

Aurreko hilaren —2025eko abuztua— aldean, industria-produkzioa % 0,6 handitu da

Eustaten datuen arabera, 2025eko irailean Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,8 txikiagoa izan da, lan-egutegi homogeneoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 0,6 handitu da azken hilabetean, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera positiboa izan du 2025eko irailean, eta produkzioa % 2,1 handitu da sektore osoa kontuan hartuta. Igoera hori batez ere *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* portaerak eragin du, horien produkzioa % 12,3 igo baita; izan ere, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* produkzioa % 0,3 murriztu da, 2024ko iraileko datuekin alderatuta. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 1,6 jaitsi da aurreko urteko irailaren aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 1,5 jaitsi da urte artean.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 4,2 igo da 2025eko irailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	-0,8	-1,1	0,6
Araba/Álava	-10,0	-4,0	-5,9
Bizkaia	0,8	-0,7	1,1
Gipuzkoa	2,5	0,1	3,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	2,1	1,1	1,3
Kontsumoondasun iraunkorrak	12,3	0,0	1,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	-0,3	1,4	1,4
Ekipo-ondasunak	-1,6	-0,2	0,4
Bitarteko ondasunak	-1,5	-1,8	-0,5
Energia	4,2	-5,1	6,3

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtearen pilotutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Azaroaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko irailean Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban (% 10,0 murriztu da). Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, produkzioak urte artean % 2,5 eta % 0,8 egin du gora, hurrenez hurren.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko irailean, urte artean, produkzioaren hazkuntza handiena sektore hauek izan dute: *Materiala eta ekipo elektronikoa* eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*; % 5,8ko eta % 4,2ko igoerekin, hurrenez hurren. Aldiz, produkzioaren urte arteko murrizketa nabarmenenak *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 3,7) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 3,1) sektoreetan izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Iraila 2025

	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	-3,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	2,6
Kaubuxa eta plastikoak	2,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	-3,1
Materiala eta tresna elektrikoak	5,8
Makineria eta tresneria	-2,5
Garraio-materiala	-1,5
Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	4,2

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Azaroaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025EKO IRAILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen bederatzi hilabeteetako balantze metatuan, Industria-produkzioaren indizea % 1,1 jaitsi da. Irailera arte metatutako produkzioa % 5,1 jaitsi da *Energian*, % 1,8 *Bitarteko ondasunetan* eta % 0,2 *Ekipamenduko ondasunetan*, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. *Kontsumo-ondasunen* sektoreko produkzioa, aldiz, % 1,1 igo da.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehenengo bederatzi hilabeteetako balantze metatua balantze positiboarekin itxi da Gipuzkoan, produkzioa % 0,1 igo baita. Araban eta Bizkaian, aldiz, produkzioa % 4,0 eta % 0,7 jaitsi da, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **86,91**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62